

# GETARIA HISTORIAN

Gauzak honela, **Getariaren Sustraiak** herri ekimenak galdera hauek jarri nahi ditu mahai gainean: Noizkoa da Getariako hiribildua? Zer gertatu zen 1200. urtean? Zer nolako eragina izan zuen gure lurretan, gure mundu simbolikoan? Zein da ondorioz gure egungo errealitatea eta etorkizuna?

Antolatu nahi ditugun ekintzekin ikuspegi osoa eta kritikoa jaso nahi dugu, gure helburua historiaren inguruko hausnarketa egitea delarik. Gure herriaren bizi iraupena bermatzeko, aurrera jarraitzeko, atzera begiratzea ere komenigarria izaten delako.

*Nondik gatozen ikertuz soilik jakin dezakegu non gauden;  
Non gauden hausnartuz bakarrik jakingo dugu nora goazen.*

## GETARIAREN SUSTRAIAK

[Getariaren-sustraiak@euskalerrria.org](mailto:Getariaren-sustraiak@euskalerrria.org)

685 708 016 (Aitor) 649 471 189 (Mikel)

[www.getariarensustraiak.org](http://www.getariarensustraiak.org)



GETARIAREN AHOTS



ERZKUTUA



nabarralde

salazgetaria

Getariako Udala



XI-XII. mendeetan Europa osoan hiribilduak eta hiriak sortzen hasi ziren, eta prozesua XIII.lean indartu zen, batik bat. Euskal Herrian hiribilduak testuinguru orokor horretan hasi eta hazi ziren. XII. eta XIII. mendeetan Europako manufaktura lekuetara bidaltzen hasi zen artilearen pasagune bihurtu zen Euskal Herria, eta jakina, bertako burdinarena, hori izan zen fundazio-fenomenoaren bigarren arrazoi nagusia, barrualdea kostaldearekin lotzea; honelakoak ziren Nafarroako Antso VI.a Jakitunak eta Azkarrak sortu zituztenak.

Era honetakoak zen Donostiako hiria, Nafarroako Antso VI.a Jakitunak eman zion fundazio-gutuna 1180an. Donostia sortzeko bere garaian idatzi zen foruak (Lizarrako forutik eratorria eta hau aldi berean Jacakoatik) itsas merkataritzako gaiak kapitulu berezituak zituen, eta Gipuzkoako kostaldeko herriak jasotzen ditu, Getaria barne.

Aipaturiko forua Getariari Antso VI.a Nafarroako erregeak eman ziola baieztatzen duen teoria, hipotesi hutsa baino gehiago da. Alfontso VIII.ak Donostian 1209ko irailaren 1ean emandako agirian, Getariako forua berretsi egin baitzuen "*confirmacionis*". Eta antza denez, errege horrek berak *harrisiak berrenbiltzeko* agindua eman zuen 1204an. Beraz, Getariako harresi eta hiribildua XII. mendean errege nafar batek emana dela, eta ez Gaztelako Alfontso VIII.ak, (ia historiografia guztiek adierazi diguten bezala), azpimarratu nahi dugu.

Euskal Herriko historia guztiz bestelakoa izango zen, Alfontso VIII.a Gaztelako erregearen soldaduak, 1200. urteko neguan Gasteiz hainbat hilabetez setiatu izan ez balute. Euskal lurretan egindako ekintza militar haren ondorioz, Gipuzkoa eta bertako lurak erresuma gaztelar berrira errenditu ziren. Era horretan, euskaldunen artean izandako mendeetako harremana eten zuten. Geroztik, Nafarroako erresumaren menpenatzea eta irenstearekin Euskal Herria erdibituko bideetan baina ibili da, baina gaurkotua eta bizirik beti.

Herri bat bere iragana osatuz hazten da, gu geu ere geure iragana osatuz hazten garen modu berean. Geure historia eraiki nahian askotan mito asmatuekin egiten dugu topo. Baina horietako asko nondik sortuak izan diren begiratzen badugu, laster ohartuko gara ideologizatutako sailhesbide batetik etorri zaizkigula. Tradizio batek eragin nabarmena izan du gurean, eta kalte handia egin dio.

Erdal historia nazionalista tradizionala tamalgarria da, haien ikuspegiaren justifikazioa bilatzearen, kondaira askok datu historikoren bat ezkutatu, edo beste batzuk berriz, ikuspegi historikoak lortzeko edo bestelako gertaerak justifikatu ahal izateko, dokumentu batzuk aukeratu dituzte. Gainera, urrutik kokatzen diren denbora historiko horietako aipamenak, gerora egiazkotzat hartzen dira, eta denborarekin kontaktaren sinplifikazioa gertatzen da.

Historiaren izaera konplexua da eta maiz kontraesankorra. Gainera, Euskal Herriari dagokionez orain arte bete gabeko hutsunea egon da eta garai eta gertakari askok, gure herrian (nahiz eta azken urte hauetan lan handia egin), arlo zabaletan nolako isla izan duten ez da oraindik behar bezala jorratu, eta Getaria ez da salbuespena.

## GETARIA HISTORIAN

Aurten, 2009. urte honetan, gogora dakarkigute Gaztelako Alfontso VIII.ak Getariari forua eman izanaren zortzi mende betetzen direla; baina, jakina, hori ere eztabaidagarria da.

Historiaurrean hasia zen gizakia Getariako inguruetan ezartzen eta antzinagokoa izan bazen ere, duela 4000 urte dago dokumentaturik, desagertutako Garate mendian zegoen *Arriandi II.a* tumuluan aurkitutako materialen arabera. Geroztik, aztarna ugari dioten gisaz, gizakiaren presentzia etengabea izan da Getarian.

